

aitziti!

LAUKIZKO EUSKARA ZERBITZUA

2015eko apirila • 41 zenbakia



"Bidea egiten!"



LIBURUTEGIA BIZIRIK!

Denbora pasa da (zortzi-bederatzi urte) liburutegian familia osorako tailerrak antolatzen hasi ginenetik. Hasiera xumea izan arren, "umea" handituz joan da eta gaur egun, ume piloak, ama-aitarekin batera batzen dira hilero-hilero. Denetarik egin da: zientzia tailerrak, sukaldaritzakoak (arrakasta itzela dutenak!), ipuinen inguruko eskulanak (liburu agendak, poltsak...), ipuin kontalariak... beti ere helburua argi dugularik: Euskarazko irakurzaletasuna sustatzea familiengan.

Izan ere, ekintza bakoitzean motibazioa lantzen da gune eroso eta informal batean, eta honela errezagoa da umeen eta familien atentzioa lortzea. Gainera argi geratu da, tailerra dagoen egunetan, maileguz hartzen diren liburu kopurua handitzen dala.

Hau guztia dela eta, honela jarraitzeko asmoa dugu: familiak liburutegira hurbilduz, guztion topaleku izan dadin.

Beraz adi egon hurrengo hilabeteetan datorrenari!

Liburu eguna ospatuko dugu, liburuen ginkana, ipuin kontalaria...

Datak jakin gura? Apuntatu:

Apirilak 17, apirilak 23, maiatzak 15, irailak 11, urriak 16, azaroak 13 eta abenduak 4

Aurkitu liburutegiko altxorra!!



JAIK

Denok dakigu noiz ospatzen diren Laukizko jaiak eta zer egiten den normalean, baina... nolakoak izatea gustatuko litzaizuke? Zein da gehien gustatzen zaizuen ekitaldia? Eta gutxien? Antolaketa lanetan parte hartu duzue?

Galdera hauei guztiei erantzuteko modu erraza duzue posta elektronikoko honen bitartez: laukiz.jaiak@hotmail.com; edo udaletxera etorri eta zuen datuak emanaz

Guztion partaidetza beharrezkoa da San Migelgo jaiak antolatzeko, San Martin eguneko ekitaldiak aurrera eramateko, baita gure herrian hain maitagarriak diren idi eta zaldi probak zein txirrindularitza probak egiteko ere!. Beti dago zeozertan laguntzeko aukerarik... argazkiak ateratzea ere bada laguntzeko modua!



**Beraz, anima zaitetze herriko bizitzan parte hartzera!
Zuen proposamenak ondo etorriak izango dira!**

EKINTZA KULTURALAK

Urte amaiera eta hasiera oparoa bizi izan dugu Laukizen!. Umeentzako zein nagusientzako antzerkia , ohikoa den Bertso Afaria Aiko Kultur taldearen laguntzaz, ikastaro ezberdinak, gabonetako parkea, magia...

Baina beharbada honakoa nabarmendu beharko genuke:

- **Zoomba ikastaroa:** Arrakasta itzela izan du gure herrian! Azkenean, hiru talde sortu dira: bi arratsaldez eta beste bat goizez eta denak oso pozik omen daude.
- **Euskararen aldeko lelo txapelketa.** Txapelketa hau martxan jarri genuenean ezin genuen imajitu ere egin hainbeste proposamen jasoko genuenik! 200 proposamen baino gehiago.
- **Dantza Talde barria eta triki tailerra.** Irailetik aurrera ari da jo ta ke herriko eta inguruetako gazte talde bat euskal dantzak ikasten. Emaitzak laster ikustea espero dugu!!. Triki eskolak ere hasi dira lehenengoz Laukizen. Jendea oso pozik dabil eta dantzarekin gertatzen den bezala, laster kaleak alaitzen ikusteko irrikitan gaude! Aurrera!

Baina.... hemendik aurrera zer?

2105ean zehar ere, jarduera ezberdinak egiteko asmoa dugu eta hauetako batzuk laster helduko dira gurera! Lehenengoa, apirilaren 24an, arratsaldeko 19:00etan, Ganene jatetxean EUSKARAZKO ANTZERKIA izango dugu! **"Desentxufatuak"** umorezko antzezlan Mikel Martinez eta Patxo Telleriaren eskutik, euskaldun berri eta euskadun zaharrentzako aproposa!

Eta ekainean, San Joan egunean, hain zuzen, udari ongi etorria emoteko ZINEA izango dugu Gaztedi Plazan.

Beraz, ekintza ez da faltako herrian! Parte hartu!



ETA ESKUALDEAN ZER?

Uribe Butroe eskualdeko Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe eta Mungiako Udalek osatzen dute "Udal Gaztedi Mungialde". Baina zein da bilgune honen helburua edota zertarako ari gara lanean talde honetan? "Udal Gaztedi" bilguneak, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako programa da, Bizkaiko gazteriari zuzendutako jarduerak aurrera eramateko Udalekin batera elkarlanean.

Laukiz, 2012an atxikitu zen bilgune honetara, "Udal Gaztedi Mungialde"-ra hain zuzen, aurrean esandako udalekin hitzarmena sinatuz. Handik aurrera, "Ideia Jam" dinamika burutu zen 2013an, enplegua, etxebizitza, gizarte partehartzea, etabarreko gaien inguruan gazteriaren iritzia zuzenean jakiteko asmoz. 2014ko ekainean, lehen aipatutako udal guztien arteko hitzarmena berretsi zen, enpleguaren gaineko amankomuneko jarduerak garatzeko guztion artean 2014 eta 2015 urteetan zehar. Gauzak honela, 2014ko azaroa eta abenduan, "Landa Hotel eta landetxeetarako kudeaketa eta marketing-a" izeneko formakuntza jarduera burutu zan. Landetxea kudeatzen ari ziren edo laster honelako bat jartzeko asmoa zuten eskualdeko zortzi gaztek hartu zuten parte. Partehartzaile guztientzako oso esperientzia positiboa izan zan.



2015ean ere, bide honetatik jarraituko dugu eskualdeko gazteei doaneko formakuntza berezia emanez, etorkizunean enplegu hobea lortze aldera. Maiatzean zehar adibidez, oso tailer interesgarria eskeiniko da: **"Nola lortu enplegua, bakoitzaren gaitasunak aprobeztatzuz"**. Laster jasoko duzue informazio gehiago etxean!

ZER GEHIAGO?

GILTZA ELEKTRONIKOA: Zuetako gehienok jakingo duzue, "giltza elektronikoa" jarri dala bai Frontoian bai gimnasioan sartzeko. Baina zein da funtzionamendua? Norentzako da? Herrian erroldatuta bazaude eta kirola egin nahi baduzu herriko instalazioak DOAN erabil ditzakezu giltza elektronikoa honen bitartez. Zazpi urte baino gehiago badituzu eta erroldatuta bazaude, 15€ren truke (fidantza moduan) eskuratu dezakezu!. Honela, gimnasioa zein frontoia libre dagoen ordutegietan, erabil dezakezu asteleheneetik domekara, 7:00etatik 22:00etara. Udaletxean eskatu eta erabiltzeko araudia azalduko dizute. Eta zuk? Baduzu zurea? **Egin kirola!**



ESKOLAKO LABORATEGIA: Laukizko Lauaxeta eskolak badu laborategi berria!. Hezkuntzak emandako materiala jartzeko leku eza dela eta, Eskolak eskaria egin zion Udalari, Goiko eskolako atzeko lokal batean kokatzeko. Udala beraz, lokala apaintzeaz arduratu da, eskolako ume guztiek erabili ahal izan dezaten.

ALE HONETAN PARTE HARTU DABE

MARÍA FERNÁNDEZ
FERNANDO UNIBASO
SAIOA SANZ



LAUKIZKO
UDALA

Lauaxeta enparantza z/g
48111 LAUKIZ
94.615.10.51
www.laukiz.net

facebook Laukiz facebook-en